

Serafin Baroja

GAZI-GEZAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea:

Euskararen Donostia Patronatua.

Iturria:

<http://www.euskaraz.net/Argitalpenak/HerriLiteratura>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00350.htm>

Oroitz bat aurrena Kalderon aundiari

Kontatzen dute gizon jakiñ bat
Arkitzen zala ain pobria,
Zeñek lurreko belarra janaz
Ixilltzen zuben gosia.
Bada gizon bat, ziyon beregan,
Ni bezin kupigarria?
Eta áu esanaz atzeko aldera
Biúrtu ditu begiak,
Eta ikusi du beste bat jaten
Ark belar txartzaz botiak.

**Serafin Baroja
Gazi-Gezak
Poesías Prosáicas
en
Vascuence y Castellano.
San Sebastian:
Imprenta de BAROJA. Constitución 2.
1875.**

AI AU DOLOREA!

Iñoiz txikitan egiñ ote det
Amen besuan ametsik?
Munduban nabill, aunditu ezkerro,
Arpegi baten atzetik,
Alferrik beti! Ez det billatzen
Pentsamentuan besterik.

Larogei urte baditut eta
Ez dit galtzen memoriak:
Begiratzen nau, far egiten dit:
Zeruak ditu begiak!
Iñolaz ángo aingeruen bat
Ikusten dute neriak.

Jesús nerea! Nere imajiña
Gaur ikusi det kalian:
Nere bordoian goiberatua
Banetorren ni pakian,
Oju triste bat bota det eta
Kordia jua zait golpian.

Larogei urte: berak amasei,
Orren berandu billatu!
Kanposantura ni nuanian
Ura munduban argitu:
Eta penarik aundiena det
Ez ditala begiratu!

MADALENEN ARRAZOIA

Madalen ezkondu zan
Bertsolai batekin.
Zortzigarren illean
Poz aundiarekin,
Eder eta galanta
Seme bat du egin.

Ama suiaren kontra
Pozoituba dago,
Ta alabak esaten du:
Nolá geruago,
Zortzikuak egiten
Oituba badago?

NORK ESAN!

Galai fiñ ori: beti damakiñ,
Ojal batian lorea;
Esango diat nai badek jakiñ
Zer dan orren dotoreá.
Izutu adi: abadea!

Beste jaun ori, zer apaindua!
Urre katia soñian:
Kotxian beti: lenbizikua
Teatruan ta bailian;
Ta bost milla errial urtian!

Iru dam'oien ama dek ura,
Ori begien alaia
Zer amatxua! Zeren itxura!
Fiña, aberatsa ta ernaia;
Eta gañera ezkongaiá.

Or ziak Sánson: berriz dek piztu.
Gorputza, indarra ta odola,
Dena batian. Ta nork sinistu,
Orlako gizon arbolá
Txikiratuba dagola!

Milla bat aldiz Joxék Paskuala
Arkitu zikan zatarra,
Broma zalia, au t'ura zala;
Ainbeste burla ta farra,
Ta orain Joxe dik senarra!

An ziak beste kaskarin dama,
Ez dik zer esan faltako;
Orain baño len bazikan fama...
«Ixilldu adi.» Zertako?
«Nere emaztea dalako.»

MEDIKU BATEN ATERALDIYA

Konke esan beza, médiku jauna,
Asmatu nuben, ez dá alá,
Nere alaben tristetasuna,
Amore kontuba zala?
Ain da gaisoa inuxentia!
Usakume bat bezala,
Malizi gabe; seguru nago
Mutill koxkorren bat dala.

Doña Leokadi: konforme nago:
André jakintsurik ez da
Españiatik Alemanira,
Berorri lenbizi ez bada.
Bañon ote dan mutill koxkorra
Edo alaba ote da,
Egiñ artian, berorrek eziñ
Jakín lezaken gauza dá.

ORI EJENPLOA!

Sartzen da Mitxel jauna
Edana etxian,
Autsiyaz jartzen dana
Bere esku aurrian.
Ikusten du emaztia
Ixillik lanian;
Silla bat eutsitzen du,
Ta golpe batian
Apurtzen du emaztia
Ta silla gañian.

Eta emazte noblea!
Ez du atzamurtu,
Ez diyo sikiyera
Begi bat garbitu,
Bestela, umill-umill,
«Senarra» —esan du,
«Orlako jolasakin
Segitzen badezu,
Beñere mueble txar bat
Izango ez dezu.»

ASTO KONTUAK

Ikusirik pasatzen
Astoak ugari,
Aita batek, algaraz,
Diyo semeari:
«Begirakiyok, Pello,
Ire anaiari.»

Semeak beriala
Erantzun du: Ené,
Oiek nere anaiak!
Ez nuben nik usté
Bedorrek zitubela
Orrenbeste semé.

LUTXI

Adi nazazu, Lutxi,
Baña ez aserratu:
Lau gora-bera, zenbat
Nobiyo dituzu?
Gutxiyenaz berrogei,
Ez zazula ukatu,
Begi polit oiekin
Zeiñ ez zuk babatu?

Igandian etxetik
Ziñanian irten,
Mutill bixar gorri bat
Zeramazun kirten.
Entzun zenuben gero
Meza San Bizenten,
Eta bik, baten partez,
Segitu zizuten.

Josteko lagun bati
Besoa emanaz,
Alferez bat ondotik
Biyak eramanez,
Merkatuko plazatik
Zijoazten farrez:
Ez gebiltzan aserre
An ikusten zanez.

Bazkalaurreko meza
Bukatu zanian,
Ur bedinkatu ondotik
Pasa ziñanian,
Zure esku polita
Busti biarrian,
Nor baitek dizu epeldu
An jende tartian.

Ez ziñan ez iritsi
Bakarrik etxera:
Batek lagundu dizu
Etxeko kalera,
Beste batekin gero
Joan zera atera,
Eta ez dezu iñor gabe
Igo eskallera.

Enpliatu batekin
Leiotik leiora,
Ari bat ibilliyaz
Berá eta gorá,
Paper buxtan bat dezu
Eraman kolkora,
Bigaldubaz aritik
Beste bat auzora.

Artsaldian ikusi
Zaitut Zurriyolan.
Iñoiz ez det ain klaro
Ezagutu nola an,
Zenbat enamoratu
Dituzun kaiolan,
Enituben kontatu,
Kontatu! naiko lan!

Arratsian... —Aski da—
Esan zidan ezé
Lutxik begiratubaz
Nai ta naiez triste:
«Askoren naitasunak
Ez nau iñoiz bete,
Nik maite det bat, eta
Berak ez nau maite.»

PUIGCERDARI AMALAUDUNA

Puigcerdá! Puigcerdá! Berriz gañean,
Ifiñi dezu, erri famatuá,
Oñ azpian karlista apurtua,
Markatuaz orpoa kopetean.
Zeñ andiya begiaren aurrean
Zauden zutik, gloriáz burua
Lagunaren aldera bildua,

Altzairu gerrakoa eskuiean.
Inguruko murrak eroriak
Egonarren, Puigcerda, zer zaizu?
Bonbaz arrasatuak naiz etxeak,
Gorrotoak naiz danak ondatu,
Basta da zure izena, zure argiak
Karlist danak belauntuko ditu.

A LOS AUXILIARES DE BILBAO

Zergatik ikusten da
Gure Donostian
Begietan malkoak,
Poza biotzian?
Zergatik seme onak
Ama salbatzian,
Anaiaz galdetu du;
Anaia du aurrian.

Bi aldiz salbatzeko
Españi gurea,
Seme bakar bat degu
Bilbaoko semea.
Zuk jaso dezu onra,
Zuk Libertadea,
Bilbao zor dizugu
Odol ta asnasea.

ONORIAREN KANPUAN

Esplika nazu, Txanton, gauza bat
Beiñ entenditzia gatik:
Irugarrengo konpañiaren
Ofizialia zu izanik,
Sartzen danian zure jendea
Aurrera sutan, zergatik
Egundañoako aziyuetan
Ikusi zaitut atzetik?

Konsistitzen du nere jendeen
Obediyentzi aundian:
Aurrera oju egiñ orduko
Nik mutillari mendian,
Tximista bezin pizkor dijuaz
Denak lenbizi nayian,
Ta, nái ta nái ez, ni gelditzen naiz
Mutill guzien atzian.